

BEIZAMAKO "BEIZAMAKO ATERPETXEA: TURISMORAKO, AISIALDIRAKO ETA INGURUMEN HEZKUNTZARAKO EKIPAMENDUA" JABARI PUBLIKOA ETA INSTALAZIO HORIETAN GARATU BEHARREKO ZERBITZUAK ESLEITZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOAK.

1. KLAUSULA. EMAKIDAREN XEDEA.

Emakida honen helburua "Beizamako Aterpetxea" Beizamako turismorako, aisialdirako eta ingurumen-hezkuntzarako ekipamenduaren eraikinean garatu beharreko zerbitzuak ustiatzea da.

Hortaz, hau da "Beizamako Aterpetxea"ren emakidaren helburua hau da:

1. Eraikina, altzariak eta instalazioak modu pribatuan erabiltzea, Plegu honetan aurreikusitako helburuetarako erabiltzeko
2. Beizama udalerriri eta bere ingurune naturalari lotutako ingurumen-hezkuntzako, turismoko eta aisialdiko jardueren zerbitzuen USTIAPENA ETA KUDEAKETA.
3. Zerbitzu osagarrien KUDEAKETA: erreserbak, publizitatea eta hedapena sare sozialetan, erabiltzaileen kontrola eta harrera, bezeroentzako jatetxe-zerbitzuen eskaintza, txangoak, bisitak eta aurreko atalean adierazitakoekin zerikusia duten guztiak.
3. Beizamako Udalarekin LANKIDETZAN aritzea jarduera kulturalak edo aisialdikoak egiteko.
4. Ustiapenerako beharrezkoak diren baliabide materialak mantentzeko eta kontserbatzeko INBERTSIOAK gauzatzea, Plegu honen Zortzigarren Klausulan jasotako zehaztapenekin bat etorritz.
5. Jarduerari atxikitako elementuak, instalazioak, altzariak eta ekipamendua kontserbatzea, mantentzea eta berritzea, Preskripzio Teknikoen Pleguan eta Plegu honetan ezarritako baldintzetan.
6. Kanona edo tasa ordaintzea eta funtsari ekarpena egitea mantentze- eta kontserbazio-lanak egiteko, Plegu honetan ezarritako baldintzetan.

Zerbitzu hauek ustiatuko dira:

- INGURUMEN-HEZKUNTZA. Hor sartzen dira ikastetxeei eta, oro har, jendeari zuzendutako hezkuntza-programak eta -jarduerak.
- TURISMOA ETA AISIALDIA, udalerriko balioen sustapena eta hedapena, Aterpetxeko instalazioetako ostatu- eta janari-zerbitzua, aisialdiko jarduerak eta taldeei harrera egitekoak barne.
- ERAKUNDE EMAILEAK AGINDUTAKO EDO BAIMENDUTAKO BESTE JARDUERA BATZUK. Udalak aisialdiko, jaietako edo kulturako jarduerak eta udalerriko biztanleentzat interesgarritzat jotzen dituen beste zerbitzu batzuk antolatzea agindu edo baimendu ahal izango du.

Horretarako, esleipendunak esleipenaren xede diren eraikinaren eta instalazioen edukitza izango du, eta gertatzen den guztiaren erantzule osoa izango da, horretarako adierazitako epe eta baldintzen arabera.

Zeharkako kudeaketaren esleipendunak bere gain hartuko ditu instalazioek xedea betetzeko beharrezkoak diren zeregin eta funtzio guztiak. Zerbitzuak eta haien ezaugarriak definitzea Beizamako Udalaren eskumena izango da uneoro, eta ez die zerbitzu horien titulartasunari uko egingo.

2. KLAUSULA.- ZERBITZUA ESKAINTZEKO ATXIKITAKO ELEMENTUAK

2.1.- Eraikinak eta instalazioak

Beizamako Udalak eskuragarri jarriko ditu esleipendunarentzat “Beizamako Aterpetxea” ekipamendua osatzen duten ondasun hauek: “Eskola zaharra” eraikina, “Garrintzazpi Laket Elkartea” sozietaterako gaitutako lokalak izan ezik, jarraian ageri den deskribapenaren eta Eranskinean atxikitako planoen arabera.

Zerbitzuen ustiapenari atxikitako elementuen deskribapena honako hau da:

- Beheko solairua: Sarrera eta harrera.
- Lehenengo solairua: Bost logela komunarekin eta banalekua. 22 plaza guztira.
- Bigarren solairua: Bost plazako logela bat komunarekin, sukaldea, jantokia/erabilera anitzeko espazioa, garbiketa-gela, komun komuna.
- Ganbara: Zazpi plazako logela komunarekin, 20 plazako espazioa literekin, komunak eta dutxak.
- Larrialdietarako irteera eta igogailua goiko solairu guztietan.
- 2025ean, aerotermiako elementuak instalatu dira berogailuaren eta ACSren instalazioetarako.

1. eranskinean daude jasota aipatutako lokalen eta instalazioen egoeraren planoak. Baliteke plano horiek aldatu izana egindako esku-hartzeen ondorioz.

Esleipen honetatik berariaz kendu dira espazio honen atxikipena eta kudeaketa:

- “Garrintzazpi Laket Elkartea” sozietateak okupatutako lokala, ekipamenduaren beheko solairuan.

Nolanahi ere, Pleguetan egindako deskribapena eta planoen irakurketa ez badatoz bat, Pleguak nagusituko dira.

Emakida hasi aurretik, esleipendunak instalazioak eta ekipamendua berrikusteko aukera izango du, eta horien egoera egokia dela eta proposatutako helburura egokitzen direla adierazi beharko du berariaz. Halaber, ikusten dituen gabezia guztiak adierazteko aukera izango du, instalazioak eta ekipamendua martxan jarri aurretik arduradunek beharrezko zuzenketak egin ditzaten.

Tresnei eta ekipamenduari dagokionez, 1. Eranskinean dago jasota egun existitzen diren tresnen inbentario eguneratua.

3. KLAUSULA - JARDUEREN PLANA

Esleipendunak instalazioetan egin daitezkeen zerbitzu guztiak eskainiko ditu Beizamako Udalarekin lankidetzan, eta, horretarako, komenigarriak iruditzen zaizkion eta instalazioekin bat datozen jarduera guztiak sustatu, antolatu eta zuzenduko ditu, Beizamako Udalaren politikarekin koordinatuta.

Beharrezkoak iruditzen zaizkion aisialdiko, turismoko, ingurumen-hezkuntzako, kulturako eta komunitateko zerbitzuetako jarduera guztiak antolatu eta garatuko ditu, eta, nolana ere, gutxieneko hauek hartuko ditu bere gain:

1.- Beizamako baliabide turistikoaren eta aisialdiko baliabideen Harrera Turistikoa, Informazio Orokorra eta Sustapena:

- Esleipendunak eskaini beharreko zerbitzuaren barruan sartzen dira erabiltzaileei eta interesdunei udalerriko baliabide turistikoari, aisialdiko baliabideei, zerbitzuei eta produktuei buruzko informazioa ematea eta arreta eskaintzea.
- Erabiltzaileek eta oro har publikoak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan artatuak izateko eta hura erabiltzeko duten eskubidea errespetatzea eta bermatzea zerbitzua eskaintzerako orduan.
- Ahal den heinean euskara erabiltzea, edo bestela euskara eta gaztelania, esleipendunak publikoarentzat egiten dituen inprimaki, abisu eta komunikazio guztietan, Administrazio Klausulen Pleguan ezarritakoa betez.

2.- Aisialdiko eta turismoko jardueren zerbitzua:

- Ostaturia eta otorduen zerbitzua eskaintzea instalazioetan.
- Udalerriko balioak ezagutarazteko eta horiek kontserbatzeko aisialdiko eta turismoko jarduerak egitea.

3.- Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua

- Ikasleei eta publiko orokorrari zuzendutako hezkuntza-programak garatzea ingurumen-hezkuntzaren barruan

4.- Komunitatearentzako zerbitzuak

- Beizamako Udalak eskatutako eta/edo harekin koordinatutako aisialdiko-jaietako-kulturako jarduerak eta komunitaterako beste zerbitzu batzuk diseinatzea eta garatzea.

5.- Instalazioetako mantentze-lanak eta garbiketa-zerbitzua.

6.- Instalazioaren eta udalerriko balio naturalen eta kulturalen publizitatea eta zabalpena egitea.

4. KLAUSULA: -TARFAK

Instalazioak erabiltzeko tarifa eguneratuak lizitatuzaileek proposatutako kudeaketa-programan zehaztu beharko dira.

5. KLAUSULA.- INSTALAZIOETARAKO SARBIDEA ETA ORDUTEGIA

Instalazioetarako sarbidea librea izango da, zerbitzu bakoitzari ezarritako prezioak ordaintzea izango da baldintza bakarra, betiere, instalazioen gaitasun eta ezaugarri propioen arabera eta instalazioen barneko erregimenaren araudiaren arabera.

Harreran informazio hau jaso beharko da euskaraz zein gaztelaniaz:

- Ekipamendua erabiltzeko ordutegia
- Zerbitzuen prezioa.
- Egiten diren eta egingo diren zerbitzuak eta programak.
- Jendeari informazioa emateko ordutegia.
- Harremanetarako informazioa (telefonikoa eta posta elektronikoa)

6. KLAUSULA: MATERIALA

“Beizamako Aterpetxea” ekipamenduaren kudeaketa egiteko, esleipendunaren kontura izango dira Beizamako Udalak jarri ez duen materialaren gastu guztiak.

7. KLAUSULA. - MANTENTZE LANAK ETA GARBIKETA

Kudeaketaren barruan, betebeharrak hauek izango ditu esleipendunak:

1.- Azpiegiturak, instalazioak, altzariak eta ekipamenduak egoera onean daudela bermatzea eta kudeatzea, instalazioak garbi eta osasungarritasun-baldintzetan mantenduz, eta, horretarako, erabiltzaileei baldintza higieniko egokiak bermatzeko produktu bakterizidak erabiliz.

Garbiketa eta Mantentze Lanen Plana entregatu beharko du, eta, besteak beste, desinfektatzeko, arratoiak hiltzeko eta mantentze-lanak egiteko aldizkakotasuna zehaztu beharko da.

Horrez gain, administrazio eskudunek instalazioen eta azpiegituren gainean ezarritako eskakizunak bete beharko dira, egun ezartzen dituenak zein etorkizunekoak.

Udaleko teknikariek instalazioak berrikusteko eskumena izango dute, egoera onean daudela egiaztatzeko.

9. KLAUSULA.- EMAKIDAREN JARRAIPENA.

Beizamako Udaleko Jarraipen Batzordeak egingo du emakidaren jarraipena eta emakidadunak ahotsa izango du bertan, baina botorik ez. Hauek osatuko dute batzordea:

- Udaleko bi ordezkariak.
- Emakidadunaren bi ordezkariak.

Batzordea urtean bi aldiz bilduko da gutxienez, eta baita edozein alde hala eskatzen duenean ere, plegu honi eragiten dion edozein gai jorrazteko, besteak beste:

- Emakidadunak emandako informazioaren azterketa.
- Udalak eskaerak aurkeztea egiturazko inbertsioekin eta horien jarraipenarekin lotutako dirulaguntzen deialdietan.
- Emakidaren jarraipenarekin eta fiskalizazioarekin lotutako gaiak.

Organo horrek instalazioen erabilera eta egoera egokia bermatu beharko du; emakida, plegu hau eta onartutako kudeaketa-proposamena betez.

Funtzio horiek betetzeko, beharrezkoa iruditzen zaien dokumentazioa eska dezakete hamabost egun lehenago.

Jarraipen-batzordeko kideen artean desadostasunak izanez gero, kontsulta-batzorde bat eratuko da erakunde hauetako kide banarekin: Urkome, Ingurugiro Etxea eta Iraurgi Lantzen.

10. KLAUSULA.- 2026RAKO ERRESERBAK.

Esleipendunak 2026rako (2. eranskina) egindako erreserbak betetzeko betebeharra du, eta horiengatik jarritako aurrerapenak ordainduko zaizkio.